

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2019 Foru Dekretua, otsailaren 26koa. Onestea nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2019rako deialdia onesten dituen 30/2016 Foru Dekretua aldatzea**

Aldatzea nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, zeinak onetsi baitziren Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez eta aldatu baitziren Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuaren eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretuaren bidez; halaber, laguntzen 2019rako deialdia onestea.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez, M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurri bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren esparruan, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan, bai eta laguntza horren 2019rako deialdia ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuaren bidez, laguntza horien oinarri arautetako batzuk aldatzen dira eta 2017rako haien deialdia egiten da.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Dekretuaren bidez, nola Europar Batasunaren C(2017) 3859 Erabakiz onetsi zen bigarren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programa, berriz ere aldatzen dira oinarri horiek, aldaketa horretara egokitzeko eta haien hainbat alderdi zehazteko; halaber, laguntzen 2018rako deialdia onesten da.

2018ko abuztuaren 13an, C(2018) 5542 azken erabakiaren bidez, Europako Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren hirugarren aldaketa onetsi du, zeinak partez laguntza lerro horri eragiten baitio, eta horren ondorioz beharrezkoa da haren oinarri arautzaileak egokitzea eta aldaketaren bat onestea, zeren eta Europar Batasunak aldaketak egitea agindu ez arren beharrezkotzat jotzen baita lehenengo instalazioko kostuak arindu eta merketzeko.

Bestalde, kontuan izanik kreditu nahikoa dagoela laguntza lerro hori izapidetzeko Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastu aurrekontuan, beharrezkoa da deialdia onestea.

Foru dekretu hau idazteko, kontuan hartu da martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako arau esparrua.

Aginduzko txostenak ikusi dira, haien ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea honako aldaketa hauek egiteari M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurri bideratutako laguntzen oinarri arautzaileetan, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuak eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretuak aldaturiko Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita baitaude:

1. Kentzea laguntza honen onuradunen betebeharrak ezartzen dituen 4. artikuluko 2. apartatua, berriz jartzea zenbakiak gainerako apartatuei eta haren 5. apartatu berria aldatzea. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

4.5 Hogeita lau (24) hilabeteko epean laguntza eskabidea aurkeztea, nekazaritza ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatzen den unetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, gainerako hautagarritasun baldintzak edo laguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituen pertsonak, baldin eta ustiategi baten titulartasuna lortu badu 0,20 NLUtako neurria gainditu gabe eta laguntza eskaera egin baino 24 hilabete lehenago enpresa plana martxan jarri gabe, laguntza horren onuraduna izan daiteke.

Ustiategiaren neurria zehazteko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduan xedatutakoari jarraitu behar zaio, zeinaren bidez ezartzen baitira hainbat laboreren marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiategietako gastu finkoen koefizienteak (EHAA, 2016-04-21).

Kasu honetan, ez ustiategiak ez gazte titularrak ez du hobekuntza planetarako edo lehen instalaziorako inongo dirulaguntzarik jasota eduki behar laguntza hau eskatu aurretik, salbu eta ustiategiak erakunde publikoren batek sustatutako enpresen mintegien esparruan inskribatuta badaude.

2. Aldatzea onuradunaren konpromiso eta betebeharrak zehatzak finkatzen dituen 6. artikuluko 2.4 apartatua. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

6.2.4 Ustiategiak instalatu den gazte bakoitzeko gutxienez 9.600,00 euroko marjina garbiaren dimentsioa lortu duela egiaztatzea. Edonola ere, zurezkoen laboreak (fruta arbolak, mahatsondoak eta olibondoak) lantzen dituzten ustiategiei loturiko enpresa planetarako, eskatzen den marjina garbiak instalatu eta 5 urteei dagozkien labore horien marjina estandarrek bete beharko ditu.

3. Espedienteak hautatzeko irizpideak finkatzen dituen 10. artikuluko 1 apartatua aldatzea. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

10.1 Laguntza emate aldera espedienteak aukeratzeko irizpideak urteko deialdi bakoitzean finkatuko dira puntuka, aintzat hartuz enpresa planean egin beharreko inbertsio eta gastuak, ustiategian pertsona gazteak zenbait ekoizpen eredu jakin aplikatzea, edota sektorearekin eta elkartegintzarekin alde aurretik lotura izatea.

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Enpresa planean aurreikusitako inbertsioak eta gastuak, ezin direnak diruz lagundu landa garapenerako planaren M04.1 neurriaren eta M04.2 neurriaren bidez (lurrak erosi, eskubideak erosi, abereak erosi, lurrak alokatu...): 1 eta 14 puntu bitartean.

Gastu baremagarriak laguntzarako eskaera aurkezten den egunetik aurrera bereganatutakoak edo egindakoak izango dira.

Enpresa plan berbera partekatzen duten pertsona batek baino gehiagok sustatutako proiektu kolektiboen kasuan, zenbateko baremagarriak eta puntuak esleipenak planean aurreikusitakoari jarraiki lanean hasiko den pertsona gazte bakoitzaren arabera izango dira. Hau da, ateratzen den zatizetik irizpide honen arabera jasotako eta enpresa planean aurreikusitako diru sarrera bolumena eta gazte partaide kopurua, bakoitzak proiektuan duen partaidetza portzentaiaren arabera. Gainerako irizpideetarako, puntuak sartzen den gazte bakoitzari aplikatuko zaizkio osorik.

Inbertsio/gastuaren gutxienezko zenbateko baremagarria 20.000,00 euro izango da, eta gehienekoa 100.000,00 euro, planeko gutzirako inbertsioa, gastu baremagarrietan handiagoa izan arren.

Puntuen esleipena gastu baremangarrien bolumenaren arabera izango da, eta honen arabera esleituko dira:

- 20.000,00 eurotan edo gutxiagotan baloratutako inbertsioei zero puntu emango zaie.
- 20.000,00 euro baino gehiagotik 100.000,00 eurora bitarteko (zenbateko hori barne) inbertsioen kasuan, eman beharreko puntuen kalkulua egiteko baloratutako zenbatekoari 20.000,00 euro kendu eta emaitza bider 0,000175 egin beharko da.

Emaitza zenbaki dezimala bada, zenbaki oso batera biribilduko da. Bi hamarren hartuko dira kontuan.

- 100.000,00 eurotan edo zenbateko handiagoan baloratutako inbertsioei 14 puntu emango zaizkie.

b) Titulartasun partekatuko ustiategi batean sartzea, edo sartzen den gaztea emakumea bada: baldintza horiek betetzen baditu 2 puntu emango zaizkio, bestela ez zaio punturik emango.

c) 39 urte baino gehiagoko eskatzaileak. Baldintza hori betetzen badu 2 puntu emango zaizkio, bestela ez zaio punturik emango.

d) Gizartze Segurantzaren soilik nekazaritza jardueragatik kotizatzen duten eskatzaileak. Baldintza hori betetzen badu 2 puntu emango zaizkio, bestela ez zaio punturik emango.

e) Ekoizpen ereduak: Ustiategian zenbait ekoizpen eredu zehatz bereganatzea puntuatuko da, gutxienez lehen sektoreko 0,5 NLUen pareko neurrian. Kontzeptu horren ondoriozko gehieneko balioak 10 puntukoak eta NLU batekoak izango dira (5 eta 10 puntu artean, eredu horietakoren bat erabiliz gero, eta gehienez bi metatu ahal izango dira).

Honako ekoizpen eredu hauek lehenetsiko dira:

Ekoizpen ekologiko egiaztatua. (gutxienez 0,5 NLU).

Ekoizpen integratua. (gutxienez 0,5 NLU).

Nekazaritza ekoizpena, ustiategian transformatzekoa (gutxienez ekoizpenaren ehuneko 50), gutxienez 0,5 NLUkoa bazkide bakoitzeko.

Nekazaritza ekoizpena, zirkuitu laburren bitartez merkaturatzekoa (gutxienez ekoizpenaren ehuneko 50), gutxienez 0,5 NLUkoa bazkide bakoitzeko.

Laborantza estentsiboko ekoizpena, ureztatze sisteman (gutxienez 5 hektarea).

f) Aldez aurretik sektorearekin lotura izatea: aldez aurretik sektorearekin loturarik ez izatea, hau da, titular berria izatea edo ustiategiaren titulartasuna bereganatuko duen gazteak aurreko titularrarekin lehen edo bigarren mailako ahaidetasunik ez izatea.

Kasu hori gertatzen denean, enpresa planean adieraziko da, eta 5 puntu emango zaizkio.

g) Elkarteak: enpresa proiektu berri bat elkarte gisa haien gain hartzea sektorean lehen aldiz jardungo duten gazte batek baino gehiagok; gehieneko muga 2 NLUkoa izango da. Egoera hori enpresa planean jasotzen bada, proiektuari gehienez 10 puntu emango zaizkio.

NLUak	PUNTUAK
1-<2	5
≥2	10

4. Aldatzea 12. artikulua, zeinak baremazio xede diren gastuak puntuatzeko ezartzen baititu puntuatzeko, bigarren puntu bat erantsita eta gainerako puntuak toki bat atzeratuta. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

**12. artikulua. Baremazio xede diren gastuak puntuatzeko**

Gutxieneko laguntzaren gehikuntza lortzeko puntuatzen diren gastuak eta inbertsioak, aurreko artikuluan aurreikusita, hauek izango dira:

- Lurren eskuraketa, ustiategiaren partaidetzaren ehunekoaren arabera.
- Ustiategian garatu beharreko ekoizpen jarduerari loturiko eskubideak eskuratzea.
- Lehenengo instalazioaren ondoriozko notario eta erregistro gastuak.
- Lehenengo ekitaldiko kanpainako mailegu baten finantza kostua.
- Lehenengo instalaziorako maileguen abalen kostua.
- Elkarte baten kapital sozialari egindako ekarpena. Kapital sozialaren nahitaezko zatiaren ekarpena bakarrik izango da baremagarria.
- Elkarte batean sartzeko kuota.
- Familia ustiategiaren jaraunskideei, egonez gero, jaraunspen eskubideak ordaintzea.
- Animalia ugaltzaile mota bakoitza ustiategian sartzen den lehen aldia, instalazioaren aldiko lehen hiru urteetan.
- Nekazaritzako jarduerari ekiteko prestakuntza ikastaroen gastuak.
- Gaztea erreleboz sartzen den ustiategitik datozen bigarren eskuko makina edo ekipoak erostea, baldin eta makina edo ekipo horiek hamar urte baino gehiago ez badaukate eta azken hamar urtean ez badute diru laguntza publikorik jaso. Makina horiek Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialean inskribatu behar dira.

• Erabilia dauden eta 150 m<sup>2</sup> erabilgarri baino gehiagoko oinplanoa daukaten eraikin erabiliak eskuratzea, egin nahi den jardueraren lizentziarekin, eta diru laguntzarik jaso ez badute. Eraikin horiek ez dute laguntzarik jasoko 04.1. neurrian azaltzen diren inbertsioengatik, beraiek eskuratzen diren urtearen ondoko lehen bost urteetan.

• Egin nahi den jarduerarako lizentzia egokia duten eta oinplanoko 150 m<sup>2</sup> erabilgarri baino gehiago dauzkaten eraikinak errentatzea, gehienez hiru urtez.

Aintzat hartu ahal izango dira 150 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera erabilgarria duten biltegiak, nahiz eta bi solairukoak izan, baldin eta makina autopropulstak sar badaitezke bi solairu horietara.

• Enpresa planean aipatzen den lurren errentamenduaren kostua, gehienez hiru urteko epean. "Aragoiko, Nafarroako eta EAeko Nekazaritzako Goi Ingeniariei Elkargoak" zehazten dituen inbertsioen balorazio moduluen arabera egingo da balorazio hau.

• Nekazaritza Sailak gaztearen lehenengo instalaziorako beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituen beste guztiak.

5. Aldatzea baremagarritzat jo ezin daitezkeen gastu eta inbertsioak ezartzen dituen 13. artikulua azkeneko gidioa. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

– Lehen graduko ezkontide eta senideen arteko erosketen eta errentatzeen ondorioz egiten diren eskualdaketak, elkarteen ustiategien eta beraien bazkideen artean egiten direnak, ezta bizikidetzaren unitate bereko kideen artean egiten direnak ere.

Aldatzea kostuak merkatzea arautzen duen 14. artikulua 1. eta 2. apartatuak. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

**14. artikulua. Kostuak merkatzea**

14.1 Gastu eta inbertsio baremagarri horiek baloratzeko, EAeko batez besteko prezio ofizial estatistikoak hartuko dira erreferentzia gisa, baldin eta EAek ezarrita badauzka. Ezarrita ez

badauzka, eta ahal den neurrian, kontuan hartuko dira merkatuko kostuen kalkuluaren prezio ofizialak edo 4.1 neurriko moduluak, baita gehieneko inbertsioaren mugak, zeinak hemen ezarrita eta argitaratuta baitaude:

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa\\_dokumentazioa/es\\_def/Modulos\\_no-viembre2018.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa_dokumentazioa/es_def/Modulos_no-viembre2018.pdf)

Udal tasen eta erakunde horien menpe dauden beste gastu baremagarrien kasuan, erakunde horiek ezartzen dutena bete beharko da.

Notariotza eta erregistro gastuetarako, erakunde horiek zehazten dutena bete beharko da.

14.2 Baldin eta ez badago ezarrita modulurik inbertsio baremagarriren baterako, erreferentziatzat hartuko da laguntzaren organo kudeatzaileak berariaz zehazten duen komusioak ezarritakoa, bestela merkatuko balioa.

6. Aldatzea I. eranskinean jasotzen den "Ustiategiaren marjina garbia"ren definizioa. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

"Ustiategiaren marjina garbia" hauen arteko aldea izango da: ekoizpen jarduera guztietatik eratorritako ustiategiko dirusarrerak, ustiategiaren dirulaguntzak barne, eta ustiategiaren gastu finko eta aldagarri guztiak, salbu eta kapital propioen eta familiako lan eskuaren ordainketari dagozkienak. Enpresa plana egitean marjina garbia kalkulatzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013ko ekainaren 18ko Aginduan xedatutakoa bete behar da. Han, hainbat laboreren marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiategietako gastu finkoen koefizienteak ezartzen dira.

Ustiategiaren marjina garbi erreala datu fiskalekin zehaztu ahalko da, edo agiri bidez frogatzen diren kontabilitate idaztoharretan oinarritutako datuekin, nekazaritzako ekoizpen jardueretatik jasotako dirusarrerei dagozkienak; horietatik hazien, fitosanitarioen, ongarrien, labore eta pentsuen aseguruaren eta berokuntzaren, bazkaren, albatari gastuen, eta oheen zuzeneko gastuak eta kasuan kasuko ganaduaren zuzeneko beste gastu batzuk kenduko dira.

Kontuan izango dira NPBren lehenengo nahiz bigarren zutabearen barruan sartzen diren dirulaguntzak.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honetarako deialdia onestea 2019. urterako (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 80), honako ezaugarri hauekin:

a) Lekua, epea eta era: 30 egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, eskabideaz gainera, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren II. eranskinean zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dira.

b) Hautapen irizpideak: honako deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak oinarri arautzaileen 10. artikulua foru dekretu honen bidez onartutako testuan ezarritakoak izango dira.

c) Dirulaguntzen zenbatekoak: 2019ko deialdiari lotutako laguntzen zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikulua ezarritakoak izango dira, foru dekretu honek onetsitako idazkeran.

d) Kreditua gordetzea: Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.09 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" partidaren kargura, guztira, 1.763.999,99 euroko zenbatekoa, urteka honela banatuta:

- 2019: 363.999,99 euro (Xedapen erref.: 19.5.19.105.601./000)
- 2020: 300.000,00 euro (Xedapen erref.: 19.6.20.105.13/000)
- 2021: 300.000,00 euro (Xedapen erref.: 19.6.21.105.3/000)
- 2022: 300.000,00 euro (Xedapen erref.: 19.6.22.105.2/000)
- 2023: 500.000,00 euro (Xedapen erref.: 19.6.23.105.1/000)

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 21.2.b) artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidaren kreditu gehikuntzarik geratuz gero, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditu hori eskabide horietan erabiliko da, dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraiki.

Laugarrena. Deialdi honetan, laguntza honen onuradunak nekazaritzako enpresen mintegi batetik datozen gazteak ere izan daitezke, baldin eta mintegi hori erakunde publiko sustatzaile batek legez eratu bada. Mintegian egon diren bitartean bertan ustiatagia eduki duten gazteak ere laguntzaren onuradun izan ahal izango dira. Pertsona horiek mintegian dauden bitartean aurkeztu beharko dute laguntza eskaera, egonaldiko azken urtean, luzeen jota. Kasu horretan, ustiatagiak edo gazte titularrak hobekuntza planetarako dirulaguntzak jasota eduki ahalko dute laguntza hau eskatu aurretik, enpresen mintegien esparruko ustiatagietan bakar-bakarrik.

Egoera horretan dauden gazte guztiek laguntza eskaera aurkeztu beharko dute, eta laguntza honen oinarri arautzaileetan ezarritako konpromisoak eta gainerako betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Atal honen babespean emandako laguntzak estatu mailako laguntza gisa hartuko dira, eta Europako Erkidegoaren 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 Erregelamenduaren esparruan emango dira; horren bitartez nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan laguntzen zenbait kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Laguntza horien finantzaketa Arabako Foru Aldundiaren funtsekin egingo da; espedienteak aipatutako arautegiaren 18. artikuluan eta dekretu honen laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**